



## HEMEZORTZI AUKERA II. SAGARDO EGUNEAN

Kultur Aroaren azken bi ekitaldiak biharko Jakoba Errekondoren hitzaldia eta etziko sagardoaren jaia izango dira 7

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2010-06-10

VIII. URTEA 2.023. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Tolosaldeko bost udalerrri atez ateko zabor bilketaren alde

**GIZARTEA** Amasa-Villabona, Aduna, Anoeta, Alegia eta Ikaztegieta dira sistema hau jartzeko prest daudenak

**BOSGARREN EDUKIONTZIA** Udal ordezkariak ez dute ulertzen Tolosaldeko Mankomunitatearen proposamena 2



Artista frantziarren eta euskaldunen lanak bildu dituzte Kale Nagusian dagoen galerian. I. TERRADILLOS

## TXILETIK MALETA ARTELANEZ BETETA EKARRI DUTE

**TOLOSA** GKO galeriakook Frantziako eta Txileko artistekin egindako elkartrukeko lanak bildu dituzte 'Carnet de voyage' erakusketan 5



A. BELAUNZARAN

**ENEKO GARMENDIA** LOKOTX BILTZAILEA

«6 minuturen bueltan bakoitzak duen guztia eman behar da»

**BALIARRAIN** Urnietatik Gipuzkoako Lokotx Bilketa Txapelketako garaipenarekin itzuli zen 6

**GAZAREN  
BLOKEOAREN AMAIERA  
ORAIN !**

Facebook-en:  
**Plataforma de Guipúzcoa  
con Palestina**

# Tolosaldeko bost udalerritan atez ateko bilketa bultzatuko dute

**Gizartea** » Amasa-Villabona, Aduna, Anoeta, Alegia eta Ikaztegieta Udalek ingurumena zaintzeko» garaia dela diote.

## ERREDAKZIOA

Amasa-Villabona, Aduna, Anoeta, Alegia eta Ikaztegieta Udalek atez ateko zabor bilketaren aldeko apustua egiten dutela azaldu zuten atzo, Villabonan eginiko agerraldian.

Udalek esandakoaren arabera, «geroz eta hiri hondakin gehiago sortzen da eta orain ateko zabortegien kudeaketak eraso zuzena egin du ingurumenean eta osasunean». Ondorioz, «zabortegiak gainezka bete dira, hondakina edozer modutan eta banandu gabe bota delako guztia zabor bihurtuz eta orain gainera tratamendu finalista erasokorrek beharrezkoak direla sinestarazi nahi digute batzuek». Zentzu honetan, erraustegiaren gaiaren inguruan ere mintzatu ziren: «Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioa, Foru Aldundiaren gidaritzapean, hondakinak erraustea nahi du eta horrela Gipuzkoa osorako erraustegi bat eraiki nahi du Zubietako lurretan. Edo makro zabortegi zikinak edota errauste planta toxikoak. Biak, ala biak, osasuna arriskuan jartzen dute eta ingurumenakaltea».

## Tolosaldeko egoera

Era berean, Tolosaldean %30 birziklatzen dela gogoratu zuten, Usurbilen -atez ateko zabor bilke-

ta dute indarrean -%80tik gorako birziklapen tasak lortu dituzten bitartean.

«Ez dugu ulertzen Tolosako Mankomunitatetik egin duten proposamena -esan zuten-. Tolosaldean bosgarren edukiontzia jartzeko proposamena egin berri dute eta mankomunitatean gure erantzuna argia izan da. Uzt itzazue bide antzuek, zezena adarretatik eusteko garaia da. Gu ere horretan konprometitzeko prest gaude eta horregatik gure udalerritan atez ateko sistema jarrai nahi dugula esan dugu mankomunitatean». Orain eskaeraren erantzunaren zain daude Udalak, baina erantzuna «dena delakoa izanda ere», alkate hauek «garbi» dute «honek ez duela atzera bueltarik eta mankomunitatetik ezezkia erantzun gabe baligute ere Udalen bitartez atez ateko sistema jartzeko pausoa emango ditugu».

Horiek horrela, «osasuna eta ingurumena zaintzeko», Gipuzkoan zero zabor programa jartzeko lan egingo dutela argitu zuten atzoko agerraldian, eta horregatik «guk ere Gipuzkoako Foru Aldundiari erraustegiaren proiektuari sei urteko moratoria eskaera luzatzen diogu. Eskaera honetan herritarrek inplikatzera ere beharrezkoa deritzogu eta horrela Tolosaldeko herritarrei ekainaren 20an Donostian burutuko den manifestazioan parte hartzeko deia luzatzen diegu».

## «Urrats sendoak Gipuzkoan»

Tolosaldeko bost Udalek atez ateko zabor bilketaren alde egiteko dituzten arrazoiak berri ematera-



Ekzerretik eskubira: Alegiako alkatea, Adunako zinegotzia, eta Villabona, Anoeta eta Ikaztegieta alkateak. HITZA

koan Gipuzkoan azkenaldian eman diren «urrats sendoak» ere aipatu zituzten. Izan ere, «ez gara zerotik abiatzen», Usurbilen, Hernanin eta Oiartzunen lortzen ari diren emaitzak «zoriontzekoak» direlarik. «Usurbilen epe motzean %80tik gorako birziklapen tasak lortu dituzte», argitu zuten. «Emaitza hauen oinarrian sistema zehatz bat aurkitzen da, atez ateko bilketa sistema. Azken bi urteotan beste esperientzia bat ere jarri dute martxan hainbat herritan» bosgarren edukiontzia», esan zuten.

## Bosgarren edukiontzia

Bosgarren edukiontzia bilketa sistemaren inguruan hauxe argitu zuten udal arduradunek: «gaur egunean ezagutzen dugun edukiontzien sistema alboratu gabe, beste edukiontzia bat gehitzen zaio materia organikoa biltzeko. Sistema hau Donostiako Amara auzoan, Zarautzen, Zumaian, Azpeitian, Azkoitian eta Aretxabaletan ezarri da Gipuzkoako Hondaki-

nen Kontsorzioaren eskutik. Bi urte pasa dira sistema hau martxan jarri zenetik eta izan dituen emaitzak ere ezagunak dira. Atez ateko sistemaren eta bosgarren edukiontzia sistemaren emaitzak konparagarriak dira».

Adibide bezala datu hauek aipatu zituzten: Hernanin egun batean Zarautzen hilabetean adina biltzen dutela -antzeko biztanle kopurua dute-, edota, Oiartzunen egun batean Azpeitian hamabost egunean adina biltzen dutela -biztanle dezente gutxiago dira-. Era berean, Usurbilen, Amara, Zarautz, Zumaia, Azpeitia, Azkoitia eta Aretxabaleta, denak batera, baino materia organikoa gehiago biltzen da.

«Bosgarren edukiontziarekin herritarren %15ak bakarrik hartzen du parte eta atez atekoarekin herritar guztiek. Hor dago aldea. Beste gaiak ere gehiago birziklatzen dira atez ateko sistemarekin; papera, kartoia, plastikoa eta abar», azaldu zuten.

## Ez dute Garikoitz Ibarluzearen estradizioaren inguruko erabakirik hartu

**Ibarra** » Akusazioak berandu bidali du ingelesera itzuli gabeko txostena eta beraz, bista uztaillaren 21ean izango da.

## ERREDAKZIOA

Atzo izan zen Garikoitz Ibarluzearen estradizio auzi saioa Londresen. Atzoko bistan, hala ere, ez zuten ibartarra epaitegira eraman eta hau dela eta ezin izan zuten estradizioaren inguruko erabakirik hartu. Epailea alde teknikoak lotzen saiatu zen hurrengo bista ere azkaragoa izateko, baina akusazioak astelehen gauean bidali zuten txostena, ingelesera itzuli gabe, gainera, eta beraz ez zuten denborarik izan kasua prestatzeko. Azkenean inongo erabakirik hartu gabe bista uztaillaren 21era atzeratu zuten.

Gogoratu behar da, era beran, Ibarluzearen estradizio auzia Espainiak eskatu ziola Britainia Handiko epai-mahai bati, kale borroka eraso batzuekin zuen ustezko loturarengatik.

## Tolosako Koadrila Eguneko txartelak

## ERREDAKZIOA

Tolosako Koadrila Eguneko (hilak 26) bazkarirako txartelak erosteko azken asteburua izango da honakoa. Orbela tabernan eskuratu daitezke bihar ostirala, 19:00etatik 21:00etara edo larunbatean 12:00etatik 14:00etara. Tikek 3 euro balio dute eta antolatzaileek edaria, platerak, mahai-tresnak eta edalontziak jarriko dituzte.

## » EGITARAUA

- **12:00.** Txupinazoa eta hamaiketako plaza Berrian.
- **15:00.** Bazkaria Euskal Herria plaza.
- **16:30.** Barra libre a Jo ta Hanka taldearekin.
- **18:30.** Kalejira Mulamborekin.
- **19:00.** Larrain dantza plaza Berrian.
- **23:00.** Devon, Inde Kitxen eta Dj Black plaza Berrian.

## U Urteurrena

I. urteurrena  
**PAKO ZURUTUZA APALATEGI**

leiala,  
laune,  
langilea...  
eredue!!!

Zure familie

**ATAUN SAN GREGORIO**  
2010eko  
ekainaren 10a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

## G Gutunak

### Mikel, ongi etorri zure etxera

Mikeli giltzadunak esan omen zion kalera zihola. Manexek bere txaboloan teletestuan ikusi omen zuen, Mikel kalera zihola. «A tu amigo le han puesto precio» esan omen zioten Manexi bere lagunek. Irriparra dauka alderik alde. Gaur espainiar kartzeletan dauden billabonatar guztien txaboloetan kontentu daude gure lagunak. Baita Villabonako kaleetan ere.

Herenegun Villabonako kaleek bizitu zutena, aspaldion billabonatarrek ikusi nahi zuketean argazkia izan zen. Pozaren argazkia. Jende izugarri Mikel ikusteko gogotsu. Eta zergatik ez esan: behar genuen.

Urte gogorra joan da. Atxiloeketak eta errepresioa, Remiren heriotza, polizi jazarpen neurrigabea. 5.000 bizilagun dituen herri txiki batek, Villabonak, 9 euskal preso politikotik dituenak, gatazkaren neurri eta dimentsio erreala beste behin ere agerian jartzen digu.

Sobera ezaguna da euskal presoek jasaten duten egoera latz etengabea. Etxetik urrun, bizi baldintza zurrunetan eta kontu zorrozpean daudela, euren senideek

ere jasan behar dituzte baldintza horien ondorioak. Lehenik, balorazio politikoen gainetik, esan beharra dago arras jokaera eskasa dela egoera latz horiedozein etekinen bila erabiltzea.

Hala ere, Gobermuko arduradunek, euren aitortu dute babesgabeen daudenak tresna politikotik gisa erabiltzen dituztela, beren diskurtso etikotik eta moralala lotsagarri utzita. Azken asteotan 73 euskal preso espetxetik aldatu dituzte, eta gauza

### Herenegun, aspaldion billabonatarrek ikusi nahi zuten argazkia ikusi zuten: pozaren argazkia.

jakina da lekualdatze batean zenbat eskubide-urraketa metatu daitezkeen, sendiaren larriminetik presoak jasaten duen zigorreraino.

Ez da kontu berria demokrazia batean preso politikotik ez dagoelako lelo behin eta berriz errepikatua. Eta paradoxikoki, gobernu espainiar guztiak tematuta agertu izan diraberen espetxe politikaren bidez euskal presoena izaera politikoa nabarmentzen, propaganda aparatuen bidez ukatu izan badute ere. Eta, ondorioz, gobernu horiek

beren gabezia demokratiko larria ezin ageriago utzi dute.

Espetxe politika horren elementu nagusia, muturrera eramaten ari direna, preso ideologikoki eta afektiboki bakartzea da; hala ere, azkenaldion egiten ari diren mugimenduak preso onerako direla sinetsarazi nahi dute, sakanaketa abiatu zutenean bezala, helburu politikoa ezkutuzten ez duten arren, eta hura lortzeko preso onerako fisiko eta psikikoa dute bitarteko.

Horiek horrela, gizarteak presoek bezain argi izan behar ditu bere presoak horrela tratatzen dituzten arduradun politikoen helburu eta prozedura makurrak. Esanguratsua da, gainera, Ezker Abertzaleak ziklo berriaren aurrean prozesu demokratikoaren aldeko apustua egin berri duenean, Gobernuak bere apustu errepresiboa areagotu izana. Hartara, preso kontrako eraso gizartearen kontrako eraso gisa ere hartu beharra dago, baita horren araberako erantzuna eman ere.

**Oharra:** Hurrengo egunetan adieraziko dugu Mikel Garmendiari omenaldia egingo zaion eguna.

**Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimendua.**



## Garmendiari harrera beroa egin diote

**VILLABONA** • Mikel Garmendia euskal preso politikoa herenegun utzi zuten aske, 15.000 euroko fidantza ordaindu ostean. Herrera de la Manchako espetxea utzi ondoren, Villabonara etorri zen eta bertan senide, lagun eta eskualdeko herritarrak zain zituen. Malkoak, irribarreak eta txaloak uneoro ikusi eta entzuteko aukera egon zen bertan. HITZA

## 'Voith-Gorostidi auzia' eztabaidagai izango da gaur 19:30ean

**Tolosa** • Aparteko bilkuraren gai zerrendan aurkitzen da Ezker Abertzaleak, EAK eta EB-Aralarrek aurkeztutako mozioa.

### ERREDAKZIOA

Gaur, ekainak 10, Tolosako udaltxearen Aparteko Osoko Bilkura egingo du Udaltzatzak, 19:30etik aurrera.

Bost puntuko gai zerrendan EA, EB-Aralar eta Ezker Abertzaleak iragan astean aurkeztu zuten mozioa aurkitzen da. Hau da, 'Voith-Gorostidi auzia'-ren inguruan hitz egingo dute udal ordezkariak gaurko bilkuran.

Gai honekin batera, besteak beste, Venta de Baños eta Tolosa herrien arteko senidetzea aztertuko da aparteko batzar honetan.

### Bilkurara azaltzeko deia

Mozioa aurkeztu zuten alderdie-tako hainbat kidek, gaiaren garrantzia azpimarratuz, herritarrei gaurko bilkurara agertzeko deialdia luzatu diete. Modu berezian zuzendu dira Voith Gorostidi eremukotorkizuneko bizilagunen-gana.

# Udalbiltzaren aurkako epaiketa gogoratuz

**Tolosa** • Auzipetuei elkartasuna azaltzeko eta epaiketa salatzeke hainbat ekimen antolatu dituzte Babes Taldeko kideek.

### ERREDAKZIOA

Udalbiltzaren aurkako epaiketa hastear den honetan, Tolosako Babes Taldeak bihar batzarra egingo du udaltxeko Bilkura Aretoan, 19:00etan. Bertan, «aurrerantzean egin beharreko babes ekimenez» hitz egingo dute. Bilerara elkarte eta eragileez gain, herritarrak ere gonbidatu dituzte.

Etzi, hilaren 12an, udaltxearen aurrean elkarretaratzeko egingo

dutela ere argitu dute Tolosako Babes Taldeak. Mobilizazioa 12:00etan izango da.

### 10 eta 23 urte bitarteko espetxe zigorrak

Udalbiltza, Euskal Herriko Udalen eta Udal Hautetsien Biltzarra, zazpi lurraldeetako ia 1.800 udal hautetsik sortu zuten, 1999ko irailean 18an Bilboko Euskalduna Jauregian.

Nazio-instituzio hau bost helbururen inguruan sortu zen. Horien artean lehena, «Euskal Herria nazioa dela aldarrikatzea da».

Baina sorreratik «oztopoz jositako ibilbidea» izan du. Horien artean, «nabarmena 2.003ko udaberriari Madrileko Auzitegi Nazio-

nalak aginduta erakunde-nazio-nalaren aurkako polizia operazioa dugu».

Zazpi urtetara dator Udalbiltza-

ren aurkako epaiketa. 22 euskal herritarrentzat 10 eta 23 urte bitarteko espetxe zigorrak eskatu ditu fiskalak zein herri-akusazioak.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Harpidedun egiten bazara aisialdirako bonu bat opari

Eroski Bidaiek eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

**Gozatu berria**

Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARRERAMATEARAKO  
943-30 43 45 • [harpidetza@berria.info](mailto:harpidetza@berria.info)

**Uztailaren 15ean**  
Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIaren harpidedunen artean.  
Eroski Bidaiek-en eskutik.

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.

**EROSKI** / Baskinbox zurekin

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**



Iazko urtera arte, Asteasuko herri sarreran ohiko zen Panpa Belarrak (Cortaderia Selloana) ikustea. E. MAIZ



## » REYNOUTRIA

Orain 20 bat urte agertu zen. Azken 10 urteetako azpiegitura lanek sekula baino azkarrago hedarazi dute. Erresuma Batuko datuen arabera, orain arte aurkituriko banakoak emeak dira (*F. japonica var japonica*) eta hazia eman ohi duten arren ez dira benetakohaziak. Lurpeko sustraiak landare amagandik 2 metroko sakonerara eta alboetara 7 metrotaraino hedatu daitezke.



## » PANPA BELARRA

Errepide sareetan ohiko landarea da eta Urdaibai bezalako Biosfera erreserban bigarren izurritea. Kondizio ertainetan, 3 metroko diamentroa eta 4 metroko altuera har dezake. Hosto luze eta estuek hertz ebakitzailak dituzte. Iraila eta urria bitartean, hazien bidez ugaltzen da. Lore buruko 100.000 hazi baino gehiago sor ditzake. Hazi horiek haizea dute garraio bide eta bide luzea egiteko gai dira: 30 kilometrotaraino heda daitezke.



## » LILA

Arrisku handiko landarea bihurtu da. Bertako landare diaren hazkuntza oztzatzen du. Haziak negu hasieran erortzen dira eta urte batzuetako loaldia dute. Landare bakoitzak, 3 milioi hazi inguru ematen ditu. Haizearen bidez hedatzen, autoen joan-etorriak hedapena errazten du. Adarrak uretan jarriaz landare berriak lortzea oso erraza da, ondorioz, ibai eta erreketako uholdeen bidez ere hedatu izan da.

# Asteasun eta Villabonan landare inbaditzaileak deuseztatzen

**Ingurumena** » Villabonan, Amasatik datorren Aranerreka, eta Asteasun, herriko erreka industriguneraino garbitzen ari dira.

## ENERITZ MAIZ

Asteasu eta Villabonako Udalek, 2009. urtetik landare inbaditzaileak deusezteko proiektua martxan dute. Alaitz Bilbao, Asteasuko eta Villabonako Udaleko ingurumen teknikariak bi herri hauek esku artean zer darabilten argitu digu.

Villabona eta Asteasuko Udalak «gure ingurune naturala kaltetzen duten Reynoutria (*Fallopia japonica*) bezalako espezie inbaditzaileak kontrolatzeko ahaleginak egiten ari dira» azpimarratu du.

Bi proiektuak beren bidea daramate eta independenteak dira. Proiektuak martxan jartzeko, 2008. urtean, Eusko Jaurlaritzara diru-laguntzak eskatu zituzten. Horrela, iaz hasi ziren landare

hauek sustraietatik ateratzen. Proiektuak gauzatzen ari dira eta urtean zehar jarraipena egin diete. Honela, eremu batzuetan, landare inbaditzaile hauek desagertzea lortu dute. Asteasun, herriko errekan aritu dira eta industriagunera bitarteko eremua garbitu dute. Villabonan berriz, Amasatik jaisten den Aranerrekan aritu dira garbiketa lanak egiten.

«Egun, gure ingurune naturalean dugun landare arriskutsuena, gure erreka bazter nagusienetan, jaun eta jabe egin da. Gure betiko haltz, hurritz, lizar edota bananondoen azpialdeetan, bihotz formako hostoa duen zuhaixka berde eta emankor bat bizi da eta hori, *Reynoutria* da» azaldu du.

«Landare hau izugarriko kalteak eragiten ari da isil-isilik. Berezi ki erreka eta erreka ostotako berezko landaredia naturalaren garapena eta hedapena oztzatzen ditu. Hau gutxi balitz, erreken biodiversitatea murrizten du, lurren baltioa gutxitu, erreken higadura handitu, uholdeetarako azpiegiturak hondatu...» gaineratu du Alaitz Bilbao.

## Gizarte osoaren esku hartzea eta sentsibilizazioa

Ekosistema naturalarentzat, *Reynoutria* benetako arriskua da, baina era berean, ezin dira albo batera utzi, Panpa belarra (*Cortaderia Selloana*) edota Lila (*Buddleja davidii*) bezalakoak. Hauek ere, gure ekosistemarentzat, landare inbaditzaile potentzialki arriskutsuak dira.

Alaitz Bilbao ingurumen teknikariak, gizarte osoari dei egin nahi izan dio: «ezinbestekoa da gizarte

osoaren esku hartzea eta sentsibilizazioa. Landare hauen sarbidea giza zakiaren eraginez izan da. Horretarako, Tolosaldeko biztanleak, landare arrotz inbaditzaileek gure ekosisteman duten eragin kaltegarri buruz informatu eta sentsibilizatu behar ditugu. Landare hauek ezagutarazi eta hauek sortzen dituzten zenbait eragin kaltegarri inguruan informatzea beharrezkoa izango da».

Azken urteetan asko zabaldu dira eta, «espezie hauek ezabatzea oso zaila da eta egun ez du soluzio bide errazik, baina, hala ere, Villabona eta Asteasuko Udalek, bere egin dute landare hau kontrolatzen saiatzeko ahaleginak». Aurreantzean ere, landare inbaditzaile hauek desagertzen joan daitezkeen lan handia egin behar da.

Hori horrela izanik, 2009. urtean ere, Asteasu eta Villabonako Udalek diru-laguntza eskatu zuten etalanean jarraituko dute.



sarrerak

HITZAK sarrera pare bat du harpidedun ordaintzaileentzat

Irurako Ikastolaren alde  
**IRRIEN LAGUNAK**  
Pirritx eta Porrotx-en ikuskizuna

Ekainaren 16an • Asteazkena • 18:00ean  
Irurako pilotalekuan

sarrerak eskuratzeko deitu goizez **943-65 56 95** telefono zenbakira

Pasa den urteko urrian eta azaroan Txilen izan ziren GKo galeriako artistak; Frantzia eta Txileko artistekin burutu zuten elkartrukea, eta itzultzean 'Carnet de voyage' erakusketa osatu dute.

## Bidaiaren ekarpenak

INIGO TERRADILLOS

**E**rabat aberasgarria» izan da GKo galeriakoentzat herrialde desberdinen artean burutu berri duten elkartrukea. Pasa den urteko maiatzean KilturV izeneko Txileko artista taldearen bisita izan zuten, eta hilabete batzuen ostean, urrian eta azaroan tolosarrak izan ziren Txilera joan zirenak. Eurekin batera, Frantziako Spacejunk galeriako artistak ere izan ziren Hegoameriako lurretan. *Herriko elkarriketak* izeneko proiektuaren bidez hiru taldeek euren ezagutzak eta esperientzia elkarbanatu dituzte, eta ekimenari amaiera emateko, *Vuelta de Chile: carnet de voyage* erakusketa osatu dute Txileko bidaiari buruz gogoeta eginez.

GKo galeriako bost lagunek bidaiatu zuten Txilera. Bertan egindako hilabeteko egonaldian hiru erakusketa jarri zituzten Txileko eta Frantziako artistekin batera, eta kalean ia egunero margotzeko aukera ere izan zuten. Esperientzia «oso ona» izan zela diote. «Guretzat erreferente diren artistekin batera egon gara, Frantziako Nicolas Thomas esaterako, eta oso handia eta berezia izan da eurekin bizitza eta ezer lan mota etanola egiten duten ikustea, asko ikasi dugu», azaltzen du GKo galeriako Ibai Lukek.



Frantziako artistetatik euren «eskarmentua eta kalitatea» azpimarratzen dute tolosarrek, eta Txilekoetatik, batez ere, baliabide gutxiarekin «lan handiak» egiteko

duten gaitasuna. «Guretzat zaharkituak dauden materialekin oso lan onak egiteko gai dira, eta euren gaitik ikasi dugu nahi izatea eta lan egitea dela garrantzitsua», dio Lukek. Bestalde, «hemen ez bezala» Txilen kalean margotzea «oso ondo ikusita» dagoela ikusi dute. «Pentsa zonalde batzuetan zaila ere bazen pintatzeko lekua aurkitzea».

Hiru artista taldeen arteko proiektuari azken erakusketa batekin eman diote amaiera, eta bertan Txileko bidaiaren ekarpenak jaso dituzte artearen bidez. Frantziako Spacejunk galerian izan da lehendabizi erakusketa hori, eta orain Tolosako galerian dago ikusgai, hilaren 14ra arte. Esperientzia «oso baikorra» izan da tolosarrentzat, eta aurrera begira elkarrekin gisa honetako proiekturen batean parte hartzea ez dute baztertzen.

### Herrian lekua egiten

Duela bi urte ireki zuten GKo galeria Tolosako Kale Nagusian, eta herritarren artean euren lana ezagutarazi ostean, pixkanaka bere lekua egiten ari da herriko paisaian. «Gustura gaude herritarren artean duen harrerarekin, areagotuz doala ikusten baitugu», azaltzen du Lukek. Euren lanari etenik gabeko jarraipena ematea dute helburu. Hurrengo ekimenen artean daude Lehenengo Graffiti eta Mural Lehiaketa, eta datorren astetik ikusgai egongo diren Pixel Panchoren eta Goyenetxe fundazioaren erakusketak.



Artista frantziarren eta euskaldunen lanak biltzen ditu GKo galerian ikusgai dagoen erakusketak.



## Dena prest Eskola Txikien Festarako, Altzon

**ALTZO** • Egun handirako gero eta gutxiago falta zaie altzotarrei. Igandean, Eskola Txikien Festa ospatuko dute herrian. Atzo, Donostiako Koldo Mitxelena aurkeztu zuten egitaraua. Goizean hasi eta gauera arte umeez, gazteek, nahiz gurasoek izango dute non gozatu, prestatutako egitarau zabalarekin. Tartean, bertsolariak, musika, haur jolasak, pailazoak, puzgarriak, erakusketa, rokodromoa eta abar izango dira. A.BELAUZARAN

E **Elkarrizketa****ENEKO GARMENDIA** ▶ Lokotx biltzailea

ABELAUNZARAN

# «Jendeak uste duena baino gogorragoa da lokotxak biltzea»

**Baliarrain** ▶ Lokotx biltzen txapel ugari irabazi ditu. Azkenekoa, Urnietatik ekarri berri du, Gipuzkoako Txapelketatik.

## AGURTZANE BELAUNZARAN

50 lokotx saskian sartzen, azkarrena da bera. Gipuzkoako Lokotx Bilketako Txapelketa irabazi berri du; hirugarren aldiz aurten. Euskal Herriko Txapelketa eta Zazpi Herrialdekatik ere, txapel banarekin itzuli zen. Herriko pilotalekua kontraktantza du entrenatzeko tokia. Honez gain, Alegiako Intxurre futbol taldeko jokalaria da eta gaztetxoan entrenatzailea. Mendi lasterketak ere gustuko ditu. Baliarraindik parez pare ikusten duen, Txindoki du hurrengo erronka. Txindoki Bertikala. Kirola maitatzeaz gain, Masaje ikastaroa egiten ari da eta Baliarraingo Udaleko zinegotzia ere bada.

## Nondik datorkizu lokotx biltzeko afizioa?

Baliarrainen herri kiroltarako ohitura handia dugu; segan, tron-tzan.... Festetan diru asko ez dugunez edukitzen kanpotik jendea ekartzeko, herritarrok hartzen

dugu parte. Duela lau urte, lagunek animatu ninduten lokotx biltzetan parte hartzera. Horrela hasi eta festetan Gipuzkoako Lokotx Txapelketa antolatu genuen herrian. **Herrian debuta egin zenuen orduan!**

Horrelaxe da. Gogoan dut, pilotalekua jendez lepo bete zela. Herri-

## «Entrenamenduetan, lagunak izaten ditut ondoan. Beraien animoak beharrezkoak ditut»

tarrek ikaragarriko animoak eman zizkidaten. Txapelketan parte hartzen nuen lehen aldia zen eta irabazi egin nuen, herrian gainera. Urte berdinean Euskal Herriko Txapelketa irabazi nuen.

## Debutatu zenuen urtean bi garai-pen eskuratu osten, zenbat txapel ekarri dituzu etxera?

Bost txapel irabazi ditut guztira.

Gipuzkoako Txapelketan hiru, Euskal Herrikoan bat eta Zazpi Herrialdekatik bestea.

## Gipuzkoako Txapelketan, Urnietan maiztzean jokatu zen hartan, denbora oso ona egin zenuen.

Oso gustura nago bai, egindako denborarekin. 6 minutu eta 17 segundotan sartu nituen 50 lokotxak saskira. Orain arteko denborarik onena da. Pasa den urtean Euskal Herriko Txapelketan, 10 segundo gehiago behar izan nituen.

## Lokotx guztiak saskira lehenengoan sartu al zenituen?

Gaizki hasi nuen lasterketa hasiera hasieratik. Lehenengo lokotxa kanpora bota nuen eta oso urduri jarri nintzen. Horrek, korrika azkarrago egin behar nuela suposatzen baitzuen. 3 edo 4 lokotx kanpora bota nituen, baina korrika nuen guztia eman eta aurkari irabazi egin nien. Bigarren goari 20 segundoko alde aterata nion.

## Edozein lekutatik bota al daiteke lokotxa?

Bai noski! Kontua ongi apuntatzea da. Asmatuz gero ondo eta kanpora botatz gero, erritmoa aldatu eta korrika gehiago egin behar da besteak harrapatzeko.

## Nolakoa da lokotx biltzeko egiten duzun entrenamendua?

Futboleko jokatzeko eta mendi lasterketarako entrenatzen naiz urte guztian zehar. Horrek, sasoi onean mantentzen nau. Txapelketa gerturatzen doan heinean, astean behin pilotalekuan entrenatzen dut. 25 lerro eginak ditut kontraktantza, bina lokotx jartzen ditut eta herriko lagunak animoak izaten dit. Beharrezkoa dut gainera ondoan norbait izatea. Bata ondoan animoak ematen eta bestea denbora hartzen. Oso kirol gogo-

## «Lokotx biltzen barruan dudak indar guztia erabiltzen dut, oso kirol gogorra da»

rra da. Denbora gutxian, 6 minutu- ren bueltan, bakoitzak duen guztia eman behar du.

## Txindoki bertikala edo lokotx biltzea da gogorragoa?

Baz dakit zer esan! Txindoki Bertikala gogorra izango dela dudarik

ez dut. Baina nik lokotx biltzen, barruan dudak indar guztia erabiltzen dut eta oso kirol gogorra da. Esprintean hasi behar duzu, lokotxa hartzeko geratu eta gero berriro esprintean jarraitu. Erritmo aldatzea handia da. Txapelketan, nire aurkariak lurrean amaitzen dute leher eginda.

## Erraza dirudi ba!

Jendeak hala uste du, baina behin probatu duenak segituan ohartzen da gogortasunaz. Herri kirolak egiten ditugunean, herrian inork ez ditu lokotxak bildu nahi. Ikusteko kirol polita da. Bukaera arte zailabaita nork irabaziko duen tanke ematea. Azken momentuan, lokotxa gaizki bota ezker, lasterketa asko aldatu daiteke.

## Lokotxak orden berdinean biltzen al dituzu beti?

Atzetik aurrea hasten naiz beti. Fresko nagoenean, bide luzeena egin eta gero gertuago edukitzeko besteak. Entrenamenduetan probatu dut alderantziz egitea edo nahastuta biltzen hastea, baina denbora hobe egiten dut atzetik aurrera hasita.

## Dopinaren aurkako neurriak hartzen al dira kirol modalitate honeetan?

Gaur egun kirol lehiaketa guztietan hartzen dira neurri hauek. Mendaroko Txapelketan egokitu zitzaizkidan probak egitea.

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Ikasleentzat etxebizitza alokatzen da Gasteizen. Interesatuak dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 943 30 0130.

### GALDUTAKOAK

■ **Ikaztegieta.** Maiatzaren 23an Ikaztegieta plaza graduaturiko betaurrekoak aurkitu ziren. Galdutuenak dei dezala udaletxera: 943 65 3329.

**Gidariak** behar dira dokumentazioa eta baliagabak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

**Lan publikoetarako** zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

**Telefonistak/harreragileak** behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

# Hemezortzi sagardo ezberdin edateko aukera etzi, II. Sagardo Egunean

**Leitza** » lazkoak lortu zuen arrakastaren ondotik, berriro antolatu dute jaia; bertsolariak eta trikitilariak ere ez dira faltako.

## ESTI EZEIZA

Aurtengo Kultur Aroa azken txanpara iritsi da. Horrek ez du esan nahi onenak eman dituenik, azken hitzorduak, aurrekoak bezain garrantzitsuak baitira. Halaber, askok eta askok, sagardo denboraldia amaitutzat eman badute ere, sagarrari azken zukuia Leitzaan asteburu honetan ateratzeko aukera izango dute.

Alde batetik, bihar, Jakoba Errekondo paisaia ingeniariak hitzaldia eskainiko du. *Sagarra eta sagastia* jarri diote izenburu solasaldiari. Hau, Aurrera elkartean izango da, 20:00etan. Bestetik, etzi, II. Sagardo Eguna ospatuko dute.

## Teoriatik praktikara

Aipatu bezala, bihar sagarraren eta



Jende ugari bildu zen iaz Lehen Sagardo Egunean, eta aurten errepikatzea espero dute. HITZA

sagastien inguruko sekretuak azalduko ditu Errekondok. Hurrengo egunean berriz, gurean horren ezaguna eta ugaria den fruitutik datorren sagardoa dastatzeko aukera izango da udaletxeko karrapean

Leitzaiko Kultur taldeak eta Au-

rrera elkarteak antolatuta, Leitzaiko Udalaren eta herriko tabernarien laguntzarekin, larunbatean, 18:30etik aurrera, 18 sagardogileen sagardoa edan ahal izango da. Iaz, modu «xumean» hasi nahi izan zuten antolatzaileek egitasmoarekin, eta izandako arrakasta-

ri esker, ez dute zalantzarik izan berriro antolatzeko. Oraingoan, funtzionamendu bera izango du, baina edateko gehiago izango da.

Berataratzen direnek, hiru eurotan erosiko dute edalontzia, eta honekin, zortzi txartel emango zaizkien. Beraz, zortzi sagardo ezberdin

## » SAGARDOTEGIAK

### Nafarrak

- **Martixonea.** Aldatz
- **Larraldea.** Lekaroz
- **Behetxoneko Borda.** Beruete
- **Lindurren Borda.** Lesaka
- **Toki Alai.** Lekuenerri

### Gipuzkoarrak

- **Petritegi.** Astigarraga
- **Lizeaga.** Astigarraga
- **Arratzain.** Usurbil
- **Egi-Luze.** Errearteria
- **Olaizola.** Hernani
- **Barkaiztegi.** Martutene
- **Larre-Gain.** Zaldibia
- **Ola.** Irun
- **Añota.** Azpeitia
- **Zaldibe.** Abaltzisketa
- **Gartziategi.** Astigarraga
- **Zabala.** Aduna
- **Isastegi.** Tolosa

edan ahal izango ditu. Bestalde, tripa hutsarekin edatea txarra dela diote, eta honetan ere pentsatuaz, pintxoak ere izango dira. Hauek herriko tabernariak jarriko dituzte.

Janaria eta edariaz gain, umore ona jartzeko bertsolariak eta trikiti doinuak ere ez dira faltako. Leitzaiko bertso eskolako kideek jarriko dizkiote puntuak II. Sagardo Egunari. Festari amaiera 21:00ak alde-  
ra emango diote.

# Elduaingo Ergoiena auzoan hiritartze lanak egingo dituzte

**Elduain** » Landagipuzkoa 32 programaren laguntzarekin finantzatu dituzte obrak; 129.000 eurotako da aurrekontua.

## ERREDAKZIOA

Foru Aldundiko Landa Ingurumenaren Garapeneko Departamentuak Elduaingo inbertsio plana onartu du Landagipuzkoa 32 proiektuaren baitan.

Egitasmoaren baitan hautatutako inbertsioen artean Ergoien auzoko (Gi-2130) urbanizazio

**129.000 euroko kostua izango dute Ergoiena auzoan egingo diren urbanizazio lanak**

**Hiritartze lanez gain, bi baserriarako bidea ere hobetuko dute egitasmo honekin**

proiektuaren proiektu osagarri dago. 2002. urtean hasi zituzten auzo hori hiritartzeko lanak, baina ezin izan zituzten osatu, arazoak sortu zirelako jabe batzuekin. Desadostasunak konponduta, Elduaingo Udalak hiritartze lanak

bukatzera lehenetsi du. Lan horiei esker, bestalde, bi baserriarako bidea egokitu eta hobetuko du. Inbertsioak gauzatzeko kostua 129.000 eurotako da, eta horietatik 125.000 Foru Aldundiaren diru-laguntza izango da.

## 19 proiektu finantzatu dituen egitasmoa

Hasi zenez geroztik, Landagipuzkoa 32 programak balio anitzeko azpiegituren 19 proiektu finantzatu ditu, 4.813.000 euroekin.

1.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrien garapena bultzatzearen, legealdiaren hasieran hartutako konpromisoa zintzo betetz, Gipuzkoako Foru Aldundiak erritmo bizian jarraitzen du balio anitzeko azpiegiturretara xedatutako inbertsioen Landagipuzkoa 32 programa gauzatzeko. Elduaingo eta Leintz Gatzagako inbertsio planak onartu ditu Diputatuen Kontseiluak azken bileran. Hauen ustez, beraian udal barrutien garapenerako lehentasunez gauzatu beharreko planak dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalen arteko lankidetzaz zabalago da alderdi ekonomiko hutsa baino, eta laguntza teknikoa, juridikoa eta administratiboa ere hartzen ditu. Horrenbestez, Etorlur-Gipuzkoako Lurra sozietateak

prestatuko ditu udalerriri onuradun bakoitzaren inbertsio planak, eta berak gauzatuko ditu plan horietan aurreikusitako inbertsioak.

Bestalde, lurraldeko eta inguruko kudeaketa eta oreka funtzio garrantzitsua betetzen duten landako udalerririk dira: gipuzkoar guztiontzat onuragarria da funtzio hori, eta, beraz, zaindu beharreko baldia.

## G Gutunak

### Partaidetza handiko Uzturpeguna

Uzturpe ikastolako zuzendaritza taldeak Uzturpe ikastolaren jaia ospatzen parte hartu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkie. Guraso, irakasle eta ikasleei antolaketan lagundu eta umore ona jarritz festa alaitu zutelako; dultzaineroei musika joaz aritu zirelako; Ibarlur kooperatibari Ibarroko piperrengatik; Zumeta bizitegiari bere loreak utzi zizkigulako jaialdia aipantze-

ko; Laskorain ikastolari paellarengatik; Sendi ekintzari sukalde tresnengatik; Orexako udalari mahai eta aulkiengatik; Ibarra soka-tirako kirolariari kirol horretan saiatzen utzi zigutelako eta Ibarroko udalari bere instalazio eta bitartekoak utzi zizkigulako. Pertsona eta erakunde guzti horienengatik ez balitz izan ezin izango genukeen hain egun ona igaro. Mila esker berriro ere.

**Uzturpe ikastolako zuzendaritza.** Ibarra.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.L.ko kideak:**

**BERTAKO**  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
Euskarari



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Anoeta.** Udako kirol ikastaroak Abraham Olano kiroldegian: aerobic-a, pilates, 3. adinerako gimnasia, multifitnes, Kenpo Kai, cycling, hip-hop (lehen maila), patinajea (lehen maila eta aurreratua). Izen-ematea, Kiroldegian.

■ **Ibarra.** San Bartolome jaietarako kartel lehiaketa. Ibarrako biztanleek parte har dezakete, lanak 22 x 22 cm formatoan (argazkia, marrazkia, pintura) gai librean. 300 euroko saria.

■ **Tolosa.** Eduardo Mokoroa udal musika eskolak 4-12 urteko neska-mutilentzat udapasa artistikoak antolatu ditu uztailearen 5etik 16ra, asteleheneetik ostiralera 09:30etik 13:30era eskolan bertan. Informazioa 943 65 15 93 zenbakian.

■ **Tolosa.** Uztailearen 4an jubilatuen festa izango da. Izen-ematea, Harizpe eta Iturriza jubilatuek elkarrekin, 3 eurotan.

### Hitzaldia

■ **Tolosa.** Silvia Camiok *Bakarrik bizitzea, elkarbizitzarako alternatiba* hitzaldia eskainiko du Amarotzeko Beti Gazteak jubilatuek elkarrekin, 18:30ean.

### Zinema

■ **Tolosa.** *Ciudad de vida y muerte* filma zine-forumean, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean. Urrezko Maskorra 2009ko Donostiako Zinemaldian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.  
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.  
■ **Irurtzun.** Mutilloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## Gaur, lehen otordua Illargi Coupage-n

**TOLOSA** • Aste osoan zehar ardo mota desberdinak dastatzeko aukera izan da Illargi Coupage ekimenean, eta gaurtik otorduak ere izango dira Zerkausian. Hain zuzen ere, *gaur afari gozoa* prestatuko du Gorrotxategi konfiteriak, 21:00etatik aurrera. Aurretik, 19:00etan kabiarrak eta esturioiaz hitz egingo dute, 19:30ean ostara dastaketa izango da, eta 20:00etan cavarekin egindako sukaldaritzaz ariko dira.rr.

## A Agurrak



### Zorionak!

**Manex Begiristain (Villabona).**  
3 urte betetzen ditu gure mutikoak.  
Zorionak, batez ere, Maddiren partetik.

**agurrak**  
urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...



### Urte askoan!

**Arkaitz eta Nagore Balda Usandizaga (Alegia).**

Gaur Arkaitzek 8 urte eta bihar Nagorek 5 urte. Zorionak eta muxu asko etxekoekin partetik.

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko hitza.info](http://www.tolosaldeko hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>